



©IGN

**D** Kambo  
Tourismo Bulegoa

GPS : 629750 - 4802158

3h00

**Seinaletika**

**D**-tik **9**-rat


**23,4 km**

**+875 m**  
**-875 m**

**Hutsegin behar ez dena**

- Quartier du Bas-Cambo
- Panorama depuis Pilotaxilo (hauteurs de l'Ursuya)
- Bordes rénovées
- Prudence aux accès sur routes bitumées
- Prudence pour longer et traverser la RD 10

**Bide profila**





© M. Egretau

**U**rsuiako mendi gainetara eramaiten duen mendiko bizikletari ohituentzako ibilaldi ederra. Gutxitan erabiliak eta ikusi beharrekoak diren bide eta pistetatik pasatzen da (Paska Lekutik besteak beste). Itzultzea jaitsiera luze baten bidez egiten da, zuhaitz multzo, arroila, iturri fresko eta erreken artetik.

### Abiatzeko bidea :

Herri barnetik, herriko etxearen ondoko turismo bulegotik.

Turismo bulegotik **D** 629750 - 4802158, herriko etxearen aitzinetik pasatu eta eskuinean den Trinketaren karrika hartu. Trinketaren hoteletik, Xerri karrikatik segitu. Karrikarte pitoresko horrek Errobi zeharkatzen duen zubi handi batera **1** 629855 - 4802350 eramaiten du. Zubia pasatu ondoren, Urdibiako bidea hartu eskuinaldean. Errobi ikusmenean, Kanbo eta Hazparne herriak elkartzen dituen errepidera eramaiten du. Bide horretan segitu 50 bat metroz ezker aldean, eta eskuinaldeko Paska Leku **2** 630809 - 4802082 bidea hartu. Errobi gainaldean duen parte zelaiaren ondotik, igaitte tpi eta gogorak hasten dira: ibilaldiaren lehen zailtasunak (200 metroko desmaila bide mundrunatuan). Bide horretan segitu 7 kilometroz, RD 252 **3** 634965 - 4798589 bidegurutzeraino.

Ezkerredera hartu Makearuntz. Auto ainitzek erabiltzen dute bide hori, beraz kasu egin. « La Place » auzoan, herriko etxearen heinean, ezkerredera hartu eta bide horretan segitu bigarren igaittea hasteko (140 metroko desmaila). Parte hori -mundrunatua hastapen batean, eta gero ingurumen natural batetik iragaiten dena -gogorra da, kasu egin pasabide kanadarrak pasatzean. Bidea utzi pentzeetatik jaisten den xendra bat **4** 635234 - 4799715 hartzeko. Beste pista batera iritsi eskuinaldetik hartuz. Artzain gun e zabal baten hastapena da, animalien jabaltasuna errespetatzea komeni da. **5** 634206 - 4799734 bidegurutzean, eskuinera hartu arditegia eta gero, gainetako gun eak eskaintzen dituen panorama miresgarrietaz gozaturik segitu bidea. Jaitsiera ez da urrun!

0,42 km

1,78 km

8,7 km

11,5 km

12,8 km

**15 km** Ondoko bidegurutzean **6** 634443 - 4801305, arditegi arraberritu batetik hurbil, parera segitu eta bihurgunea hartu eta gero, bidea utzi ezker aldean den xendra hartzeko. Mendi gaina segitu pista bateraino. Bidegurutzean, eskuinera hartu eta 300 metroz jaisten den pista

**16 km** segitu, zeharkatu behar ez den etxe multzo **7** 633814 - 4801641 bateraino. Bide mundrunatua baino 20 metro lehenago, bidea utzi eta ezker aldean den xendra hartu pentzeetatik, beste pista batera iristeko. 400 metroz jaitsiz, ezkerredera segitu bidegurutzeraino. Eskuinera hartu eta 80 metro urrunago berriz eskuinera, 500 metroz igaiten den bidera iristeko: ibilaldiaren zailtasunetan azkenetarikoa. Etxe multzo batera iristean, jaisten den bidea hartu parean. Pasabide kanadarra pasatu ondoren, ezkerredera hartu, hots ondoko bidegurutzeraino

**18,5 km** **8** 632296 - 4801332 segitu behar den bide mundrunatura. Ezkerredera hartu eta berehala eskuineko xendra. Jaitsi RD 10 bidea atxeman arte. Stop-ean, ezkerredera

**21,1 km** hartu eta laster eskuinera Olha eiheraruntz **9** 631035 - 4802666. Eiherako zubia pasatu ondoren, ezker aldean den lurbidea hartu lotzazamendu bateraino, bidea segitu ezker aldean trenbidera arte. Errobi bazterretik pasatzen den bidetik zubira joan, eta joait ean hartutako bidetik ibilaldia bukatu.

**23,4 km**

# ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

## Maila eta seinaletikak



**Desmaila:** ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziaz kalkulatuak dira.



**Iraupena:** ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.

## Bideen GPS helbideak

Erreferentziazko neurria:  
WGS 84 - UTM 30T  
Ibilbideen GPS bideak  
telekargatu:  
[www.rando64.fr](http://www.rando64.fr)



## VTT / VTC mendiko bizikleta ibilaldiak

Ibilaldi desberdinak zenbakien bidez markatuak dira. Zailtasunaren arabera kolorezko zenbakien bidez sailkatuak dira.

▶ Bide zabal eta erraza. Publiko guziaz ideoia, bizikletez ibil daitekeena.

▶ Xendra teknikoa. Ibiltari aditua, jakintza teknikoa beharrezkoa.

▶ Bide aski erraza. Noizbehinka bizikletez ibil daitekeena.

▶ Xendra biziki teknikoa. Teknikoki zein fisikoki, maila konfirmatua eskatua.

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR®-en xendrak	GRP®	GR®	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerre hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GR®, GRP® eta PR® Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira.  
Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR® labelaren pean.

## GOMENDIO BALIAGARRIAK

- ▶ Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo [www.meteofrance.com](http://www.meteofrance.com)
- ▶ Europako urgentziazko deia 112
- ▶ Zuen segurtasunarentzat, balizak dituzten bideak hartu eta ibilaldien zentzuak errespetatu.
- ▶ Zuen gaitasunak ez soberetsi, eta kasu guzietan zuen abiaduraren jabe izan.
- ▶ Zuen segurtasunarentzat, kaskoa ez ahantzu.
- ▶ Hornidurak, edariak eta jantzi egokiak hartu.
- ▶ Izan kortes eta zuhur beste ibiltariak pasatu edo gurutzatzean.
- ▶ Mendiko bizikletariak badaki ibiltariak lehentasuna duela eta errepide kodea errespetatu behar duela.
- ▶ Jabego pribatuak eta laborantza guneak errespetatu, hesiak berriz hetsi.
- ▶ Laborantzako eta oihaneko mekanikei kasu eman, haien zirkulazioa ez trabatu.
- ▶ Abere basak ez trabatu.
- ▶ Zuen hondarkinak atxiki, diskretua izan eta izadia errespetatu.
- ▶ Bakarrik joaiten bazarete, zuen ibilbidea komunikatu ingurukoei.
- ▶ Zuen ateraldiak elikatzeko, profesionalekin harremanetan sartu.

Kasu !

Uso ehiza garaian (urritik azarorat), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorat), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.



## Gure xendrei buruzko iritziak

**Eco-veille®** Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharrak ongi etorriak dira, atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitera gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkargora deituz, 05 59 93 65 94.  
Ecoveille® orria telekargatzen ahal duzue: [www.rando64.com/ecoveille](http://www.rando64.com/ecoveille)  
Ecoveille@behaketa orri bat ere eskuratzeko ahal duzue.



Xehetasun gehiagorentzat:  
**Ezpeletako Turismo Bulegoa**  
Ezpeletako Baroien Jauregia – 64250 Ezpeleta - Tel : 05.59.93.95.02  
Mail : [espelette.tourisme@wanadoo.fr](mailto:espelette.tourisme@wanadoo.fr) - Web : [www.espelette.fr](http://www.espelette.fr)



[www.rando64.fr](http://www.rando64.fr)

oinez, mendiko bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!